



CRISTINA ENEA FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Izaera, izena eta iraupena

Cristina Enea Fundazioa (aurrerantzean "Fundazioa") irabazi-asmorik gabeko eta iraupen mugagabeko erakundea da, eta haren sortzaileen borondatez, fundazioaren ondarea estatutu hauetako 3. artikuluan deskribatzen diren interes orokorreko helburuak lortzeari lotuko zaio modu iraunkorrean.

2. artikulua.- Araubide juridikoa, nortasuna eta gaitasun juridikoa

Fundazioak nortasun juridiko propio eta independentea dauka Fundazioa eratzeko eskritura Fundazioen Erregistroan inskribatzen den unetik, eta gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasuna izango du. Izango dituen muga bakarrak honako hauek izango dira: erakunde sortzaileek Fundazioa sortzeko egintzan haien borondatea adierazteko zehazten dituztenak, Estatutu hauetan eta estatutuak interpretatu edo garatzeko Patronatuak onartutako arauetan zehazten direnak eta, betiere, Fundazio honi aplikatu beharreko lege-xedapenetan zehazten direnak, bereziki, ekainaren 2ko 9/2016 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoan (aurrerantzean, "Fundazioen Legea") eta garapenerako haren erregelamenduzko xedapenetan zehazten direnak.

Horrenbestez, eta Babesletzari egin beharreko komunikazioak gorabehera, Fundazioak edozein bitarteko erabil dezake ondasun higigarriak edo higiezinak eta eskubideak eskuratu, gorde, eduki edo besterentzako eta, horrekin batera, ondasun-eskubide horien gaineko mota guztietako egintzak edo kontratuak egin ditzake; maileguak jaso eta itzul ditzake; bide judizialean amore eman dezake eta bide judizial edo administratibora jo dezake, eta horretarako, mota guztietako ekintzak edo salbuespenak jar ditzake auzitegi, epaitegi eta erakunde publiko zein pribatuetan, antolamendu juridikoan ezartzen denaren arabera.

3. artikulua.- Fundazioaren xedekak

Fundazioaren xedea Donostiako udalerriko ingurumenaren defentsa da, hau da, lurraldea eta ondare naturala, baliabide naturalak, bioaniztasuna eta paisaiak zaintzea, hiriaren garapen jasangarriaren alde egitea eta mundu osoko antzeko fundazio eta erakundeekin sarean lan egitea.

Horretarako, Fundazioak, Donostia hiri jasangarriagoa izatea helburu duten programak eta proiektuak garatuko ditu. Ingurumen, hezkuntza, sentsibilizazio eta kontsumo arduratsuaren inguruko ekimenak, eta orohar, jasangarritasunerantz dihoazen jarduerak sustatuko ditu eta horietan parte hartuko du, donostiarren artean bizimodu jasangarriagoa sustatze aldera.

IFK/NIF: G-20.988.432
Erregistroa: F252

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 · 20012 · Donostia/San Sebastián
Tel: +34 943 45 35 26 · Faxa: +34 943 47 14 14 · cristinaenea@donostia.eus · www.cristinaenea.eus





Helburu zabal horien artean, ondorengo jarduera hauek lehenetsiko dira:

- Iraunkortasunaren Behatokia jarriko du martxan hirian.
- Ingurumenaren inguruko informazio-jarduerak eta Dokumentazio Zentroaren ingurukoak burutuko ditu.
- Ingurumen Hezkuntzaren inguruko proiektuak garatuko ditu: Eskola Agenda 21, Kontsumo Iraunkorraren Ikasgela, Iraunkortasunerako hezkuntzaren tailer tematikoa Espainiako Hiri Hezitzaileen Sarean, Aste Berdea, Udalekuak...
- Prestakuntza-ikastaroak eta unibertsitateko graduondoak emango ditu eta gaiari buruzko kongresuak, jardunaldiak eta hitzaldiak antolatuko ditu.
- Gaiari buruzko erakusketak antolatuko ditu bere instalazioetan edo beste erakunde batzuekin lankidetzan.

4. artikulua.- Xedeak garatzea

Fundazioak egoki irizten dion moduan gara ditzake xedeak, eta horretarako, beste erakunde batzuetan ere parte har dezake. Xedeak garatzerakoan dituen muga bakarrak fundazioaren eratze-agirian, Estatutuotan eta Estatutuak interpretatu edo garatzeko Patronatuak onartutako arauetan, eta betiere, aplikagarriak zaizkion lege-xedapenetan ezartzen direnak dira, bereziki Fundazioen Legea eta garapeneko erregelamenduzko xedapenak.

5. artikulua.- Egoitza

Fundazioaren egoitza hemen egongo da: Ingurumen Baliabideen Etxea, Cristina Enea Parkeko Mandasko Dukearen Jauregian, Mandasko Dukearen pasealekua, 66, Donostia.

Patronatuak ahalmena izango du Fundazioak dituen xedeak betetzeak sortzen dituen beharren arabera ezar daitezkeen establezimendu, ordezkari eta bulegoen egoitzak zehazteko.

6. artikulua.- Lurralde-eremua

Fundazioak, batez ere, Donostiako udalerrian egingo du lan.

7. artikulua.- Onuradunak

1.- Fundazioak ezarritako irizpide objektibo eta inpartzialak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak eta pertsona juridikoen kasuan interes orokorra erakusten duten guztiak izan daitezke Fundazioaren jardueren onuradun.

2.- Inork ezin du alegatu Fundazioaren edo haren Patronatuaren aurrean, ez banaka ez taldean, eskubideok eman aurretik haietaz gozatu duenik, ez eta eskubideok pertsona jakinei esleitzea inposatu ere.



3.- Fundazioak, dituen interes orokorreko xedeen barruan, objektibotasuna eta inpartzialtasuna erabili behar ditu onuradunak aukeratzeko, inolako bereizkeriarik eragin gabe. Fundazioaren xede nagusia ez da inondik inora izango erakunde sortzaileei, Patronatuko kideei, haien ezkontide edo harreman-afektibo berdintsua duten pertsoneri edo laugarren mailara arteko senideei bere prestazioak eskaintzea, ez eta interes orokorrik ez duten pertsona juridiko berezietan ere. Fundazioak, onuradun izateko, eskaintzen dituen zerbitzuen truke zenbateko bat ordaintzea eskatzen bada, zenbateko hori benetan ordaindu dutenak bakarrik izango dira onuradun. Halaber, Fundazioaren beraren izaera dela-eta onuradunen kopurua mugatu behar bada, Fundazioaren Patronatuak aukeratu eta zehaztuko du nor izango den onuradun, eta erabaki hori ezin da azkendu. Horretarako, kontuan hartuko ditu hautagaiek dituzten merituak, beharrak, gaitasun ekonomikoa eta etekina ateratzeko modua edo beste zenbait ezaugarri objektibo. Edozein kasutan, inork ezin du alegatu Fundazioaren edo haren organoen aurrean, ez banaka ez taldean, eskubideok eman aurretik haietaz gozatu duenik, ez eta eskubideok pertsona jakinei esleitzea inposatu ere.

4.- Edozelan ere Donostiako hiritar guztiak hartuko dira Fundazioaren jardura eta prestazioen hartzailetzat.

8. artikulua.- Jarduera- eta funtzionamendu-printzipioak

Fundazioak printzipio hauek izango ditu gidari bere jardueran:

- a) Publikotasuna eta gardentasuna. Publikotasun- eta gardentasun-printzipioek gidatuko dute Fundazioaren jardura, eta honek, helburu, jardura eta prestazioei buruzko informazio nahikoa emango du, herritarrek, oro har, eta balizko onuradunek haien berri izan dezaten.
- b) Inpartzialtasuna eta diskriminaziorik eza onuradunak zehazterakoan, baita jarduerak eta prestazioak zehazterakoan ere.
- c) Jarduteko jarraibideen sustapena, jokabide-kodeak eta funtzionamendurako jardunbide egokiak sortuz.
- d) Patronatuko kideen zerbitzu-izpirituaren, baita interes propio eta partikularren aurrean Fundazioaren interesak lehenestearena ere.
- e) Lankidetzeta leiala eta etengabekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzarekin.
- f) Fundazioaren ondarea eta errentak benetan Fundazioaren helburuetarako erabil daitezzen defendatu eta babestea, Fundazioaren estatutuetan eta indarrean dagoen araudian aurreikusitakoarekin bat etorriz.



II. TITULUA. PATRONATUA

1º KAPITULUA. OSAKETA ETA ESKUMENAK

9. artikulua.- Patronatua

Patronatua Fundazioaren gobernu-, administrazio- eta ordezkaritza-organo goren da, eta bere kargura izango ditu Fundazioaren kudeaketaren barruan haren xedeak bete ahal izateko beharrezkoak diren zuzendaritza- eta kontrol-ahalmen guztiak. Zehatzago esanda, Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun-eskubide guztiak arduraz administratuko ditu.

10. artikulua.- Osaketa

Fundazioaren Patronatuak, gutxienez, sei kide izango ditu, eta gehienez, bederatzi.

Lehenengo Patronatua sei kidek osatuko dute, eta horietako bat Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatuko du. Gainerako bostak Donostiako Udalak izendatuko ditu araudi erregulatzaileari jarraituz, eta horietako bat Donostiako alkatea izango da.

Behin Patronatua osatuta, bertako kideen, parte-hartzaileen edo saioan ordezkatuak daudenen gehiengo boto sinplearekin onartutako akordioaren bitartez, hiru kide osagarri izendatu ahal izango ditu; kide horiek erakunde kolaboratzaile babesleek proposatuko dituzte, Fundazioak lankidetzari buruz duen barne-araudiari jarraituz.

Fundazioen Legean aurreikusitako arrazoiez gain, Patronatuko kideen kargu-uztea organo honek adostu beharko du, eta haren izendapena proposatu zuen erakundeari aurrez jakinaraziko zaio. Berehala ekingo zaio dagokion kidea izendatzeko prozedurari.

11. artikulua. – Patronatuko kideen izendapena eta plaza hutsen estaldura

Lehenengo Patronatua erakunde sortzaileek izendatuko dute sortze-eskirituran. Patronatuko kide berrien izendapena, izan kopurua handitzeko edo izan ordezkapena egiteko, Patronatuak berak egingo du Patronatuko kideen, eta saioko parte-hartzaile edo ordezkatuaren gehiengoaren boto sinpleekin, Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia edo erakunde laguntzaile babesleen proposamenez, bete beharreko postuaren arabera. Patronatuko kide izendatutakoek espreski onartu beharko dute kargua Fundazioen Legearen 16. artikuluan aurreikusitako formularen batek dioenari jarraituz. Izendapen horiek Fundazioen Erregistroan erregistratuko dira eta horiekin batera izendatutako pertsonen onarpenaren egiaztagiria ere txertatuko da, ez bada, beren izendapena, Euskadiko Fundazioen Erregistroan agertuz onartzen dutela.

Patronatuko kide-karguak iraupen mugagabea izango du.



Heriotza, ezgaitasun, gaitasungabetze, heriotza-aitorpen, eskusio edo bateraezintasun, uko egite, enkaitze edo Patronatuko kide baten ordezkapena edo kargu-uztea eragiten duen egoera baten eraginez hutsik gelditutako postuak prozedura bera jarraituz estaliko dira, eta plaza bete gabeko egoera ezingo da sei hilabete baino gehiagoz luzatu. Hala ere, postuak bete gabe egoteak Patronatuko kargudun-kopurua hiru baino txikiagoa dela baldin badakar, Patronatuko gainerako kargudunek, edo hala behar denean erakunde sortzaileek, Fundazioen Legeak exijitutako gutxienezkoa lortzeko beharrezkoak diren kideak izendatuko dituzte, Patronatuaren ezohiko saio batean onartutako akordioaren bidez, eta akordio hori Babesletzari jakinaraziko zaio 30 egun naturaleko epean.

Epaileak Patronatuko kideak kargutik kentzeko erabakia hartu ahal izango du baldin eta kide horien aurka, beren kargua legearekin eta estatutu hauen 19. artikulua arabera behar bezalako arretaz bete ez dutela eta, erantzukizun-akzioa abiarazi bada. Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira Patronatuko kideak ordezte, karguak utzaraztea, bai eta horiek etetea ere.

12. artikulua.- Doakotasuna

Patronatuko kideek doan beteko duten beren kargua. Hala ere, beren eginkizunak betetzeak gastua eragiten badiete, behar bezala egiaztatuak badaude, ordaindu egingo zaizkie.

13. artikulua .- Fundazioaren Lehendakaritza

Fundazioaren Lehendakaritza Donostiako Alkateak beteko du. Lehendakariak deituko du Patronatua, norberaren ekimenez edo gutxienez Patronatuko kideen heren baten eskariz, deliberamenduak gidatuko ditu eta akordioak bete. Patronatuko Lehendakaria gobernu-organo horren ordezkari gorenaz izango da, eta organo horren kide legez dituen ahalmenez gainera, honako eginkizun bi hauek izango ditu: batetik, Fundazioa ordezkatu du Patronatuaren eta Fundazioaren beste organo batzuen erabakien ondoriozko egintzetan eta kontratuetan. Bestetik, Fundazioa ordezkatu du sortzen diren auzietan, espedienteetan, bai eta administrazioaren eta gobernuaren aurrean zein epailetan edo epailetan kanpo gertatzen diren arazo guztietan ere; orobat, prokuradore eta abokatuei ahal orokorrak egilesteko ahalmena dauka, ahal horiek arestian aipatutako xedea betetzeko badira.

14. artikulua.- Lehendakariordetza

Patronatuak bere kideen artean izendatuko du lehendakariordea, eta Patronatuko kideen, eta saioko parte-hartzaileen edo ordezkatuaren gehiengo sinplearekin aukeratuko dute. Lehendakariordeak lehendakaria ordezkatu du azken hori ez dagoenean edo gaixorik dagoenean, eta egoera horiek egiaztatzeko nahikoa da egoerok gertatzen direla adieraztearekin. Lehendakaria zein lehendakariordea ez baleude, adinez zaharrena den kideak ordezkatu luke.



15. artikulua.- Idazkaria

Patronatuak izendatuko du, bere kideen artean edo ez, Idazkaria. Patronatuaren saioen aktak jaso eta Akta Liburuan kopiatuko ditu, behin onartuak eta Lehendakariaren oniritziarekin. Halaber, Patronatuaren akordioak egiaztatuko ditu, Lehendakariaren oniritziarekin.

Horrez gainera, Idazkariak Abokatu-Aholkulari moduan ere jardun dezake horretarako titulazioa baldin badu, eta beti ere Patronatuak ez badu funtzio horiek betetzeko beste pertsona bat izendatzen.

16. artikulua.- Abokatu Aholkularia

Patronatuak, beharrezkotzat joz gero, Abokatu Aholkulari bat izendatu dezake Fundazioaren aholkularitza-funtzioak bete ditzan.

17. artikulua.- Patronatuaren eskumenak

Patronatuaren eskumena Fundazioaren gobernuari dagokion guztira iritsiko da, eta bereziki, ondorengoetara:

- 1- Fundazioaren norabidea adieraztea, helburuak hobeto betetze aldera.
- 2- Baliabide ekonomiko eta finantzario guztiak administratzea, haien jatorria edozein delarik.
- 3- Urteko Kontuak eta Ekintza Planaren likidazioa onartzea, azkenekoa derrigorrezkoa izanez gero.
- 4- Ekintza Plana onartzea.
- 5- Barne-erregimeneko arau egokiak onartzea, eta zehazki, lankidetzari buruzko barne-araudia, eta baita erakunde laguntzaileen atxikimendu eskaerak ere.
- 6- Patronatuko kideak izendatzea, kopurua handitzeagatik edo ordezkapenarengatik, eta baita haien kargu-uztea ere.
- 7- Batzorde Delegatuak sortzea, haren kideak izendatzea eta ahalmenak zehaztea eta ahalduak orokorrak edo bereziak ematea, hurrengo artikuluan jasotzen denari jarraituz.
- 8- Zuzendaritza-karguak, ejekutiboak eta aholkulariak izendatzea, eta baita gainerako langile tekniko, administratibo, laboral eta mendekoen kontratazioa ere.
- 9- Fundazioaren xedeak ahalik eta modurik onenean betetzeko edozein motako ekintzak eta kontratuak formalizatu eta onartzea, izaera zibil, merkantil, laboral, administratibo edo bestelakoa izan.
- 10- Maila altuagoko onarpena behar duten gaietarako dagokien erakundeetan proposamenak aurkeztea.
- 11- Lankidetzat tekniko eta langile kualifikatuen prestakuntza programetan enpresa, erakunde edo partikularren parte-hartzea sustatzea, fondoak aportatuz eta lankidetzat hitzarmenen bitartez.
- 12- Herentziak, legatuak edo donazioak onartzea edo horiei uko egitea, Fundazioarentzat egokitzen jotzen bada.



- 13- Sortze-estatutuak aldatzea, erakunde sortzaileen borondatea hobeto betetzeko beharrezkoa izango balitz, eta estatutuen interpretazio- edo garapen-arauak onartzea.
- 14- Fundazioaren bat-egitea, bereizketa, eraldaketa, azkentzea eta likidazioa onartzea.
- 15- Beste pertsona juridiko bat eratzeko edo azkentzeko egintzak onartzea.
- 16- Beste pertsona juridiko batzuetako partaidetzak eskuratu edo saltzea onartzea, baldin eta partaidetza horien zenbatekoa Fundazioaren aktiboaren %20 baino gehiago bada, eta, oro har, Fundazioaren aktiboaren %20 gainditzen duten ondasun edo eskubideak xedatzeko edozein egintza onartzea.
- 17- Zuzkidura handitzea edo gutxitzea onartzea.
- 18- Aktibo eta pasibo guztien edo batzuen bat-egitea, bereizketa edo lagapen orokorra onartzea.
- 19- Patronatuko kideen autokontratazioa, salbu eta jarduketa hori errepikatua bada eta Babesletzak aurretik baimendu badu kasu berdinatarako.
- 20- Erantzukizunpeko adierazpenak onartzea eta formalizatzea onartzea.
- 21- Laguntzak emateko oinarriak onartzea.
- 22- Fundazioak dituen xedeak betetzeak sortzen dituen beharren arabera ezar daitezkeen establezimendu, ordezkartza edo bulegoen egoitzak zehaztea.
- 23- Erantzukizun-egintza burutzea.

18. artikulua.- Eskuordetzeak, ahalordeak eta Batzorde Eskuordeak

Patronatuak haren kideetako bati edo gehiagori eskuorde diezazkieke dituen ahalmen batzuk edo guztiak, honakoak izan ezik:

- 1- Urteko Kontuen onespena.
- 2- Ekintza Planaren onspena.
- 3- Estatutuen aldaketa.
- 4- Fundazioaren bat-egitea, bereizketa, eraldaketa, azkentzea eta likidazioa.
- 5- Beste pertsona juridiko bat eratzeko egintzak, ez badaude helburuei erabat lotuta.
- 6- Beste pertsona juridiko batzuetako partaidetzak eskuratzeko edo saltzeko egintzak, baldin eta partaidetza horien zenbatekoa Fundazioaren aktiboaren %20 baino gehiago bada.
- 7- Fundazioaren aktiboaren %20 gainditzen duten ondasun edo eskubideak xedatzeko edozein egintza.
- 8- Zuzkidura handitzea edo gutxitzea.
- 9- Aktibo eta pasibo guztien edo batzuen bat-egitea, bereizketa edo lagapen orokorra.
- 10- Sozietateak edo beste pertsona juridiko batzuk azkentzeko egintzak.
- 11- Patronatuko kideen autokontratazioa, salbu eta jarduketa hori errepikatua bada eta Babesletzak aurretik baimendu badu kasu berdinatarako.
- 12- Erantzukizunpeko adierazpenak onartzea eta formalizatzea.

Aurrez adierazitako mugak aintzat harturik, Patronatuak Batzorde Beterarazle edo Eskuordetu bat edo batzuk eratu ahal izango ditu, kasu bakoitzean zehazten diren



ahalmenekin, eta ahaldu orokorrak edo bereziak ere izendatu ahal izango ditu, funtzio mankomunatu edo solidarioekin.

Eskuorde eta ahalorde orokor guztiak, eta horien baliogabetzea, Fundazioen Erregistroan inskribatu behar dira.

19. artikulua.- Patronatuaren betebeharrak

Fundazioaren Patronatuko kideek honako betebeharrak dituzte:

- Fundazioaren xedeak zehatz betetzea eta betearaztea, Legean eta Fundazioaren estatutuetan ezartzen denaren arabera.
- Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun-eskubideak administratzea, eta haien errendimendu eta erabilgarritasuna osorik mantentzea, kudeaketa on batek izan behar dituen irizpide ekonomiko-finantzarioen arabera.
- Legezko ordezkari batek izan behar duen arretaz betetzea kargua.

20. artikulua.- Autokontratatzeko debekua

Patronatuko kideek edo haien ordezkariak ezingo dute Fundazioarekin kontraturik egin, ez beren izenean ez hirugarrenen izenean, Babesletzak horretarako baimenik ematen ez badu.

Fundazioaren helburuak ahalik eta ondoen lortzeko egingo dira kontratu horiek; merkatuko baldintzetan egingo dira, Fundazioan kontratazioaren ardura duen pertsona edo organoak aurretik erabaki arrazoitua emanda.

21. artikulua.- Erantzukizuna

1- Patronatuko kideek legeek ezartzen duten moduko erantzukizuna dute Fundazioarekiko.

2- Patronatuko kideek Fundazioaren aurrean solidarioki erantzungo dute, legearen edo Estatutuen kontrako egintzen ondorioz edo kargua behar bezalako arduraz ez betetzeagatik eragiten dituzten kalte eta galerengatik.

3- Erantzukizunetik aske geratuko dira erabakiaren kontra bozkatu dutenak, erabakia hartzen eta betearazten parte hartu ez, eta erabakiaren berririk ez zutela frogatzen dutenak, bai eta, erabakiaren berri izan arren, kaltea ekiditeko komeni zen guztia egin zutela edo, gutxienez, esanbidez aurka agertu zirela frogatzen dutenak ere.

4- Erantzukizun-akzioa agintaritza judizialari aurkeztuko zaio, Fundazioaren izenean. Honako hauek aurkeztu ahal izango dute:



- a) Fundazioaren patronatuak berak. Horretarako, erabakia arrazoitu egin beharko da, eta dena delako patronatukideak ezin izango du erabakia hartzeko prozesuan parte hartu.
- b) Babesletzak, bi kasutan: artikulua honen 2. paragrafoan adierazitako egintzen kasuan; eta lege honen 20 d) artikuluan jasotako kasuan, patronatua osatzen duten kideek kargua utz dezatela eskatzeko.
- c) Artikulu honen 3. paragrafoaren arabera patronatuarekin ados ez dauden patronatukideek eta erabakia hartu zenean ez zeudenek, bai eta fundatzaileek berek ere, patronatukide ez bada.
- 5- Fundazioen Erregistroan inskribatu egin beharko dira patronatua osatzen duten kideen erantzukizuna exijitzeko jurisdikzio arruntean aurkezten den akzioa eta prozedurari amaiera ematen dion ebazpen judiziala, errekurtsorik aurkezten ez bazaio.

22. artikulua.- Gerentzia

Patronatuak hirugarrenen esku utz ditzake Fundazioaren gerentziaren eginkizunak, eta horiek betetzeagatik ordainketa egokia egingo da. Gerentziaren izendapen eta karguuztearen berri Babesletzari emango zaio.

Gerentziak beregain hartuko du Fundazioaren ohiko kudeaketa, Patronatuak markatutako ildoei jarraituz.

Halaber, Gerentziak egingo ditu Urteko Kontuak eta Inbentarioen Liburuak, Kontuak eta Aurrekontuak, eta Egunerokoaren ardura ere izango du.

Horrez gain, Fundazioaren gestioaren berri emango die Patronatuko kideei, organo horrek ezarritako aldizkakotasunarekin.

Patronatuak Gerentziaren aldeko ahalmenak eman ahal izango ditu, Estatutuen 18. artikuluan ezarritako mugen barruan. Ahalmen horiek Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

23. artikulua.- Fundazioaren zerbitzura dauden langileak eta Berdintasun Plana

Fundazioaren zerbitzura egongo diren langileak aukeratzekoan, berdintasun, meritu, gaitasun eta deialdiaren publizitate-printzipioak izango dira nagusi.

Halaber, Fundazioak, Berdintasun Plan bat landu beharko du, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 40. artikuluan eta Emakume eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoaren 49. artikuluan zedatutakoari jarraituz.



2º KAPITULUA. PATRONATUAREN JARDUTEKO ARAUBIDEA

24. artikulua.- Barne-funtzionamendua

25. artikuluan aipatzen diren izaera unibertsaleko saioen kasuan izan ezik, Patronatuko saioen deialdia aldeztu aurretik egingo da, idatziz. Deialdian Lehendakariak erabakitako gai-zerrenda agertuko da; gai-zerrenda erabakitzeko, Lehendakariak kontuan hartuko ditu Patronatuko kideek egindako iradokizunak. Bilera-eguna baino 10 egun lehenago egin behar da, gutxienez, deialdia, premia kasuetan izan ezik; kasu horietan, epea hiru egunera labur daiteke. Saioaren hasieran Lehendakariak premia hori justifikatuko du.

Patronatuak, urtean, bi bilera egingo ditu, gutxienez. Urteko lehen sei hilabeteetan eta aurretiaz deialdia eginda, Urteko Kontuak onartzeko bildu beharko da nahitaez. Era berean, urteko laugarren hiruhilekoan, hurrengo ekitaldirako Ekintza Plana onartzeko bilduko da nahitaez. Onespenez hori Babesletzari igorriko zaio, abenduaren 31 baino lehen.

25. artikulua.- Eraketa eta erabakiak hartzea

Patronatua balioz eratuta geratuko da lehen deialdian, baldin eta kideen erdia baino gehiago bertaratzen badira, fisikoki nahiz ordezkari bidez. Aurrez aipatutako quoruma lortzen ez bada, ordu erdi geroago bilduko da Patronatua; bigarren bilera horretan, nahikoa izango da gutxienez Patronatuaren hiru kide egotea, baldin eta horien artean Presidentea edo Presidenteordea badago.

Aurreko paragrafoa gorabehera, Patronatua biltzeko deia egingo da, eta Patronatua balioz eratuta geratuko da, baldin eta aho batez bilera egitea onartu eta gai-zerrendako puntuak onatzen badituzte.

Uneren batean Patronatuko kargudun-kopurua hiru baino txikiagoa bada, Patronatuak ezohiko bilera egingo du, gutxienez lortzeko beharrezkoak diren Patronatukideak izendatzeko. Saioa balioz egin ahal izateko, Patronatuko kide guztiak agertu beharko dira, fisikoki eta/edo ordezkari bidez.

Oro har, erabakiak hartzeko, Patronatuko kideen gehiengo sinplea lortu behar da, saioan fisikoki daudenak edo ordezkari bidez (hau da, aldeko boto gehiago kontrakoak baino, boto baliozkoak, txuriak eta abstentzioak kontuan hartu gabe), honako kasu hauetan izan ezik:

1. Estatutuak aldatzeko, bat-egiteko, bereizteko, eraldatzeko, lagapen globalerako eta azkentzeko erabakien kasuan, nahitaezkoa izango da Patronatuko kideen bi herenek erabakiaren aldeko botoa ematea.

2. Estatutu hauetan edo Fundazioen Legean botaziorako beste gehiengo bat ezartzen bada, hori bete beharko da. Horrela, Patronatuko jarduneko kideen gehiengo osoa



(kargua indarrean duten Patronatuko kideen erdia baino gehiagoren aldeko boto moduan ulertuta), (i) erakunde laguntzaile babesleen atxikimendu-eskaera onartzeko eta (ii) Fundazioen Legearen 26. artikuluan aurreikusitako erantzukizunpeko adierazpena.

Presidentziak gidatuko ditu deliberazioak eta berdinketa izanez gero, Presidentearen botoak erabakiko du.

Patronatuaren bilera bakoitzaren akta Patronatuaren Idazkariak egingo du. Aktak zehaztuko du zein tokitan eta egunetan egin den bilera, nor bertaratu den (fisikoki edo ordezkatua), zer gai eztabaidatu diren eta zein erabaki hartu diren.

Patronatua bideokonferentziaz edo beste komunikazio-bide batzuen bitartez elkartu ahalko da, baldin eta parte hartzen dutenen identifikazioa, komunikazioaren jarraikotasuna, deliberazioetan parte hartzeko aukera eta boto-emisioa bermatzen bada. Kasu horretan, ulertzen da, saioa presidente lana beteko duen pertsona dagoen lekuan egingo dela.

Salbuespenez, Patronatuak bilera egin beharrik gabe har ditzake erabakiak, baldin eta informazio- eta boto-eskubideak bermatzen badira, botoa jaso dela jasota geratzen bada eta botoaren egiazkotasuna bermatzen bada. Ulertzen da akordioa pertsona juridikoaren etxebizitzan onartzen dela eta baliozki emandako azkeneko botoa jaso den datan.

III. TITULUA. ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA

1º KAPITULUA. OSAKETA, ADMINISTRAZIOA ETA ZAINTZA

26. artikulua.- Fundazioaren ondarea eta baliabideak

Fundazioaren ondarea hasierako zuzkidura osatzen duten eta balorazio ekonomikoa izan dezaketen ondasun, eskubide eta betebeharrak osatuko dute, bai eta Fundazioak, sortu eta gerora, eskuratutakoek ere, zuzkiduran eragin ala ez.

Fundazioaren ondareak honako osagai hauek izango ditu:

- Fundazioa sortzeko eskrituran jasotzen den hasierako zuzkidura.
- Erakunde sortzaileen ekarpenak eta kuotak, ohikoak eta ez-ohikoak, eta Patronatuko kideek beren borondatez ordaintzen dituzten kuotak eta ekarpenak, ohikoak eta ez-ohikoak.
- Fundazioak aurrerantzean eta Zuzenbidean onartutako edozein bitarteko erabiliz eskuratzen duen beste edozein ondasun edo eskubide, eta, bereziki, beste pertsona edo erakunde batzuek emandako legatu, dohaintza, ekarpen eta diru-laguntzak direla bide eskuratzen dituztenak.



- d) Ondarearen eta Fundazioak egiten dituen jardueren fruituak edo errentak, produktuak edo mozkinak, bai eta ematen dituen zerbitzuen trukean jasotako ordainketak ere, indarrean dagoen legediaren arabera.
- e) Fundazioei aplikatzeko lege-esparruan aurrez ikusten den beste edozein baliabide.

27. artikulua.- Xedatze- edo kargatze-egintzak

1- Fundazioak Fundazioen Babesletzari jakinarazi beharko dizkio bere ondarea osatzen duten ondasun edo eskubideen kostu bidezko edo doako xedatze-egintzak, baita kargatze-egintzak ere. Honako hauek, hain zuzen:

- a) Ondare-zuzkidura osatzen duten ondasun edo eskubideei buruzkoak edota Fundazioaren helburuak betetzearekin zuzenean lotuta daudenei buruzkoak.
- b) Zuzkidura alde batera utzita, Fundazioaren ondarearen zati bat xedatzeko edo kargatzeko direnak, baldin eta onetsitako azken balantzearen arabera Fundazioaren aktiboaren %20 gainditzen badute, Fundazioa kontu-ikuskapena aurkeztera behartuta badago, eta %40 behartuta ez badago.

Fundazioaren ondasun eta eskubideak haren helburuak betetzearekin zuzenean lotuta daudela ulertuko da lotura hori berariazko borondate-adierazpen batean bilduta dagoenean, hau da, erakunde fundatzaileen, Fundazioaren Patronatuaren edo Fundazioari borondatezko ekarpena egiten dion pertsona fisiko edo juridikoaren adierazpenean, edota, bestela, babesletzaren edo agintaritzaren judizialaren ebazpen arrazoitu batean bilduta dagoenean.

Patronatuak administrazio-prozeduraren araudian aurreikusitako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dio Babesletzari. Adierazpen horretan zehaztuko da xedatzeko edo kargatzeko erabakia behar bezala hartu dela eta horretarako arrazoiak eta beharrak zein diren, orobat eragiketarako Fundazioari ez diola kalterik eragiten eta haren bideragarritasun ekonomikoa ere ez duela arriskuan jartzen.

Xedatze- edo kargatze-egintzen xede diren ondasun edo eskubideek merkatuan duten balioa Fundazioaren aktiboaren %60 baino handiagoa bada, azterlan ekonomiko bat erantsi beharko dio Patronatuak erantzukizunpeko adierazpenari, profesional independente batek egina. Adierazpenean azaldutakoa egia dela ziurtatu beharko du azterlanak, eta Fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa bermatu, eta halaber irizpide ekonomiko-finantzarioekin eta merkatukoekin bat datorrela eragiketa. Salbuetsita daude merkatu ofizialetan negoziaturiko ondasunak besterentzako egintzak, baldin eta horiek gutxienez kotizazio-preziora erdiesten badute.

Patronatuak erantzukizunpeko adierazpena onartzeko, Patronatukideen gehiengo absolutuaren aldeko botoa behar da. Bilera-aktan eta hartu diren erabakien berri jasotzen duten ziurtagirietan, Patronatukide bakoitzak zer bozkatu duen adierazi beharko da.



Fundazioaren zuzkidurarako zati diren ondare-elementuak besterentzat badira, horren kontraprestazio gisa lortutako ondasun edo eskubideak ere Fundazioaren zuzkiduratzat hartuko dira, salbu eta Patronatuak aurkakoa erabakitzen badu.

Lortutako kontraprestazioa Fundazioaren zuzkiduraren parte bihurtzen ez denean, Fundazioak osatu egin beharko du zuzkidura hori aurreko baloraziora iritsi arte. Horretarako epea urtebetekoa izango da, egintza hori egin zenetik kontaktzen hasita.

Artikulu honetan bildutako egintzak Fundazioen Erregistroan jasoko dira, hargatik eragotzi gabe beste erregistro batean ere inskribatzea, hala dagokionean. Gainerako xedatze- edo kargatze-egintzak Babesletzari urtero aurkeztu beharreko memorian agertuko dira.

28. artikulua.- Herentziak eta dohaintzak

Fundazioek herentziak onartzen badituzte, inbentario-onuraren arabera onartzen direla ulertuko da beti. Kargadun legatuak edo kostu bidezko dohaintzak edo ordain gisa emandakoak onartuz gero, eta kargarik gabeko herentziak, dohaintzak edo legatuak arbuiz gero, egintza horiek egin eta hurrengo 10 egun baliodunen barruan komunikatu beharko dizkio Patronatuak Babesletzari.

29. artikulua.- Fundazioaren ondarea zaintzea

Fundazioaren ondarea zaintzeko eta babesteko, erregela hauei jarraituko zaie:

- Fundazioaren ondareko ondasun eta eskubideak Fundazioaren izenean egon, haren inbentarioan agertu eta, hala denean, kasuan kasuko erregistroetan inskribatuta egon beharko dute. Urteko inbentarioa irabazi-asmorik gabeko erakundeei aplikatzen zaien kontabilitate-araudiari jarraituz egingo da eta Patronatuak onespina eman beharko dio Fundazioaren Urteko Kontuekin.
- Ondasun higiezinak eta eskubide errealak Fundazioaren izenean inskribatuko dira Jabetza Erregistroan. Gainerako ondasunak inskribatzeko modukoak badira, egokitzen den erregistroan inskribatuko dira.
- Fundazioa titular duten baloreak, eskudirua, jabetza-tituluak, gordailu-gordekinak eta, oro har, jabaria, edukitza, erabilera, gozatzea eta beste edozein eskubideren egiaztagiriak, Patronatuak erabakitzen duen erakundean gordailutuko dira Fundazioaren izenean.
- Gainerako ondasun higigarriak Patronatuak erabakitzen duen moduan zainduko dira.

Ondasun edo eskubide horiek guztiak Inbentario-liburuan aipatuko dira, eta horiek identifikatzeko eta deskribatzeko beharrezkoak diren inguruabar guztiak agertuko dira.



2º KAPITULUA. ERREGIMEN EKONOMIKOA

30.artikulua.- Ekitaldi ekonomikoa eta Ekintza Plana

Patronatuak, ekitaldi bakoitzeko azken hiru hilabeteen barruan, Ekintza Plan orekatu bat landu, onartu eta igorriko du Fundazioen Babesletzara, eta bertan jasoko dira helburuak, hurrengo ekitaldirako aurreikusitako jarduerak, diru-sarrera eta gastuen aurreikuspena eta Ekintza Planaren azalpen-memoria. Dokumentazio horrekin batera Patronatuaren Ekintza Planaren onespren-ziurtagiria ere bidaliko da.

31. artikulua.- Ekonomia- eta kontabilitate-arloko betebeharrak eta Urteko Kontuak

Ekitaldi ekonomikoa urte naturala izango da.

Fundazioak bere jarduerari dagokion kontabilitate ordenatua eta egokia burutuko du, egindako operazioen jarraipen kronologikoa ahalbidetuko duena, indarreko kontabilitate-araudiari jarraituz.

Urteko Kontuek unitate bakarra osatuko dute, argi idatzita egongo dira eta fideltasunez jasoko dituzte ondarea, egoera finantzarioa eta Fundazioaren emaitzak.

Gerentziak egingo ditu Urteko Kontuak. Kontuetan honakoak sartzen dira: balantzea, emaitzen kontua, memoria eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat kontabilitate-planak ezartzen dituen gainerako dokumentuak.

Patronatuak, ekitaldia ixten denetik gehienez ere sei hilabeteko epean onetsi beharko ditu Urteko Kontuak, irabazi-asmorik gabeko erakundeei aplikatzen zaien araudiari jarraituz.

32. artikulua.- Kontu-gordailua

Urteko Kontuak onetsi eta hurrengo 30 egun naturaleko epearen barruan, Patronatuak Fundazioen Erregistroara bidaliko ditu, behar bezala sinatuta, indarreko araudian aurreikusitako dokumentuekin batera, Fundazioen Legearen 32. artikulua dioenari jarraituz.

Bestalde, Patronatuak, Urteko Kontuekin batera, Fundazioaren erregistro-datu eguneratuen ziurtagiria ere igorriko dio Fundazioen Erregistroari.

33. artikulua.- Kontratazio-erregimena eta autokontratazio-debekua

Fundazioak kontratazio publikoko araudian edo Kontuen Auzitegian aurreikusitako baldintzak, betebeharrak eta kontrolak bete beharko ditu.



Beste betebeharrak batzuen artean, Fundazioak bermatu beharko du egiten dituen kontratazioak printzipio hauen arabera: lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikotasunaren printzipioa eta hautagaien arteko diskriminazio eza eta berdintasunaren printzipioa.

Patronatuko kideek edo horien ordezkariak ezingo dute Fundazioarekin kontratatu, ez euren izenean, ez eta hirugarrenen izenean ere, baldin eta Babesletzaren baimenik ez badute.

Kontratazio hori Fundazioen Legearen 36. artikulua dioenari jarraituz egingo da.

34. artikulua.- Sarreraren eta administrazio-gastuen erabilera

Fundazioak emaitzen kontuaren diru-sarreraren %70 gutxienez baliatu beharko du bere helburuak gauzatzeko. Diru-sarrera horiek kontzeptu guztiak direla-eta lortuak izango dira, diru-sarrerak lortzeko Fundazioak izandako gastuak kenduta, Fundazioaren helburuak betetzeari buruzkoak izan ezik. Betebeharrak betetzeko epea emaitzak eta diru-sarrerak lortzen diren ekitaldiaren hasiera eta ekitaldi horren itxieratik hurrengo hiru urteen artekoa izango da.

Artikulu honetan jasotakoaren arabera, ez dira diru-sarreratzat hartuko ondorengo etekinak: sortze-zuzkiduraren ondasun higiezinaren besterentzetik lortutakoak; zuzkiduraren ondasun eta eskubideen kostu bidezko eskualdaketatik lortutakoak; fundazioaren xedeei artez eta modu iraunkorrean atxikitutako ondasunen gaineko erabilte- eta zergapetze-egintzetatik lortutakoak, betiere, diru-zenbateko hori dotaziorako edo atxikipen berbera duten ondasun edo eskubideetan berriro inbertitzen denean.

Administrazio-gastuak Fundazioaren ondareko parte diren ondasun eta eskubideen administrazioak zuzenean eragindakoak izango dira, eta baita diru-itzultze eskubidea dagokien karguak betetzeagatik Patronatuko kideei eragindako gastuak ere.

Patronatuaren akordioaren arabera, artikulu honetako lehenengo paragrafoa betetzeko bideratuko ez diren gainerako errentak edo sarrerak, zuzkidurak edo erreserbak handitzeko erabiliko dira, behin administrazio-gastuak kendu eta gero eta indarreko araudian zehaztutako gehienezko portzentajearen arabera.

35. artikulua.- Kontuen auditoria

Donostiako Udaleko Kontu-hartzaitza Nagusiak urtero egingo du auditoria.

Gainera, Fundazioak, Urteko Kontuen kanpo-auditoria egingo du, Fundazioen Legearen 33. artikuluan aurreikusitako kasu eta egoerenpean eroriz gero. Horrelakoetan Fundazioak kanpo-auditoria aurkeztu beharko du Urteko Kontuekin batera.



Halaber, Fundazioen Legearen 33. artikuluan, edo gainerako araudi aplikagarrian, aurreikusitakoaren arabera, Fundazioa Urteko Kontuen kanpo-auditoria egitera derrigortua ez badago, Patronatuak borondatez onetsi ahalko du auditoria hori Fundazioen Babesletzari aurkeztea, eta urteko kontu-emateen espedienteari txertatuko zaio.

IV. TITULUA. ALDAKETA ETA AZKENTZEA

36. artikulua.- Aldaketa

Fundazioaren Patronatuak ebazpen ziodun bitartez alda ditzake Estatutu hauek, baldin eta Fundazioaren interesekin bat badator, Fundazioaren helburuak betetzeko balio badu eta erakunde sortzaileek ez badute berariaz debekatu. Aldatzeko erabakia hartzeko, Patronatuko kideen bi herenek eman beharko dute aldeko botoa.

Estatutuen aldaketak erakunde sortzaileek ezarritako helburuen aldaketa edo ezabapena eragingo balu, ahal den neurrian erakunde horien onespena lortu beharko litzateke, baita Babesletzaren berariazko onspena ere, erregistro-inskripzioaren aurrekoa.

Patronatuak onetsi beharko du Estatutuen aldaketa, Fundazioa sortu zeneko baldintzak haren funtzionamendu zuzena oztopatzerara arte aldatu direnean, Fundazioen Legearen 36. artikuluan jasotakoaren arabera.

37. artikulua.- Azkentzea

Fundazioa azkenduko da:

- 1- Kode Zibilaren 39. artikuluan, Fundazioen Legean nahiz bestelako legeetan ezarritako edozein arrazoi gertatzen denean.
- 2- Bat-egite edo bereizketa prozesu batek halakoa dakarrenean berekin.
- 3- Epailearen ebazpen irmo batek Fundazioa desegiten duenean.
- 4- Fundazioaren xedea betetzea ezinezkoa denean, estatutu-aldaketa, bat-egite eta bereizketari buruz Euskal Herriko Fundazioen Legean jasotakoari kalterik egin gabe.

38. artikulua.- Azkentze-prozedura

Aurreko artikulua 1., 2. eta 4. ataletan ezarritako kasuetan, Fundazioa azkentzeko Patronatuko kideen bi herenen aldeko botoa beharko da, eta Fundazioen Legeak exijitutako kasuetan, Babesletzak berretsi beharko du.

Patronatuak erabakia hartu ezean edo Babesletzak erabakia berretsi ezean, Fundazioa azkentzeko nahitaezkoa izango da epaileak ebazpen zioduna ematea; hala denean, Babesletzak edo Patronatuak eragin ahal izango du ebazpen hori.



Fundazioen Erregistroan inskribatuko da azkentze-erabakia, edo, hala denean, epailearen ebazpen zioduna.

39. artikulua.- Likidazioa

Fundazioaren likidaziotik geratzen den soberakina erakunde juridiko publiko sortzaileentzako izango da oso-osorik, edo, hala denean, osatu zenean edo ondoren egindako ekarpenaren proportzioan.

V. TITULUA. BABESLETZA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

40. artikulua.- Babesletza

Fundazioa Babesletzaren zaintza, aholkularitza eta kontrolpean dago, indarrean dauden legeek xedatzen duten moduan.

41. artikulua.- Fundazioen Erregistroa

Fundazioaren eraketa, bai eta legearen arabera inskribatu beharreko egintza edo negozio juridiko guztiak ere, legearen arabera eskudun suertatzen den Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

VI. TITULUA. FUNDAZIOAREN LAGUNTZAILEEN ARAUBIDE JURIDIKOA

42. artikulua.- Erakunde sortzaileak

Fundazioaren eskrituran sortzaile moduan azaltzen diren erakundeek 60.000 euroko ekarpena egingo diote urtero Fundazioari; ekarpen hori urtero berrikusiko da, Estatistika Institutu Nazionalak argitaratzen duen Kontsumoko Prezioen Indizearen aldaketaren arabera.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, ekarpena, Patronatuak onartutako programak garatuz egingo du.

43. artikulua.- Laguntzaileak

Fundazioaren sortze-eskritura egilestean, Fundazioan sartu ahal izango dira, babes-izaera duten laguntzaile gisa, Fundazioari urtero, gutxienez, 60.000 euroko ekarpena egiten dioten pertsona fisiko edo juridikoak, bai eta, laguntzaile arrunt izaeraz, Fundazioari urtero, gutxienez, 15.000 euroko ekarpena egiten dioten pertsona fisiko edo juridikoak ere, fundazio-jarduera edo programa jakinak gauzatu ahal izateko. Ekarpen horiek urtero aztertuko dira, Estatistika Institutu Nazionalak argitaratzen duen Kontsumoko Prezioen Indizearen aldaketetara egokitzeko.



Laguntzaile izan nahi duten pertsona fisiko edo juridikoek Fundazioari atxikipena eskatu beharko diote, dagokien ekarpen ekonomikoa egiteko konpromisoa adieraziz.

Atxikitze-eskaera horiek Fundazioaren Patronatuak erabateko gehiengoz onetsi beharko ditu.

Laguntzaile-babesle gisa Fundazioari atxikitzen zaizkion kasuan:

- a) Patronatuko kideen izendapena proposatu ahal izango dute, edo eurak izendatu daitezke patronatuko kide, babesle-izaera duten erakunde laguntzaileak ordezkatzuz, Estatutu hauetako 10. eta 11. artikuluetan jasotzen denari jarraituz.
- b) Fundazioak gauzatzen dituen jardueren eta argitaratzen dituen argitalpenen berri izango dute.
- c) Fundazioari exijitu ahal izango diote urtean egiten duten ekarpenaren %30 gutxienez, babes-izaera duen laguntzaileak kolaboratu nahiko lukeen jarduerak egiteko erabil dadila, baldin eta sortze-xedeen kontrakoak ez badira.
- d) Fundazioak editatzen dituen argitalpen guztietan azalduko da euren irudi korporatiboa, atxikimendua formalizatzerakoan bi aldeek ezarritako baldintzak aintzat harturik.
- e) Fundazioarekin duten lotura jakitera eman dezakete, beti ere, atxikimendua formalizatzerakoan bi aldeek ezarritako baldintzak aintzat harturik.
- f) Fundazioak antolatzen dituen ekitaldietara gonbidatuak izango dira.
- g) Fundazioaren instalazioak erabili ahal izango dituzte sortze-xedekin bat datozen dibulgaziozko jarduerak egiteko, baldin eta libre badaude eta atxikimendua formalizatzerakoan bi aldeek ezarritako baldintzak aintzat harturik.
- h) Hala nahi izanez gero, Lankidetzari buruzko Barne Araudian aldaketak egitea proposatu diezaiokete Patronatuari, gai horri buruz Araudian jasotzen denaren arabera.
- i) Patronatuak egiten dituen saioetara joatea eskatu dezakete, baina hitzik eta botorik gabe, baldin eta Patronatuak eskaera onartzen badu.

Era berean, laguntzaile arrunt gisa Fundazioari atxikitzen zaizkion kasuan:

- a) Fundazioak egiten dituen jardueren berri izango dute.
- b) Fundazioari exijitu ahal izango diote urtean egiten duten ekarpenaren %20 gutxienez, babes-izaera duen laguntzaileak kolaboratu nahiko lukeen jarduerak egiteko erabil dadila, baldin eta sortze-xedeen kontrakoak ez badira.
- c) Laguntzailearen kolaborazioaren barneko jarduerak jakitera emateko erabiliko diren publizitate-euskarrietan laguntzailearen irudi korporatiboa azalduko da.
- d) Fundazioak antolatzen dituen ekitaldietara gonbidatuak izango dira.

Donostian, 2018ko ekainaren 6ean.

IFK/NIF: G-20.988.432
Erregistroa: F252

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 · 20012 · Donostia/San Sebastián
Tel: +34 943 45 35 26 · Faxa: +34 943 47 14 14 · cristinaenea@donostia.eus · www.cristinaenea.eus





ESTATUTOS DE FUNDACIÓN CRISTINA ENEA FUNDAZIOA

TÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- Naturaleza jurídica, denominación y duración

Fundación Cristina Enea Fundazioa (en adelante, la “Fundación”) es una organización constituida sin ánimo de lucro y de duración indefinida que, por voluntad de sus creadores, tiene afectado de modo duradero su patrimonio a la realización de los fines de interés general que se describen en el artículo 3 de los presentes Estatutos.

Artículo 2.- Régimen jurídico, personalidad y capacidad jurídica

La Fundación tiene personalidad jurídica propia e independiente desde la inscripción de la escritura de constitución en el Registro de Fundaciones y dispone de plena capacidad jurídica y de obrar, sin otras limitaciones que las establecidas por sus entidades fundadoras en el acto fundacional como manifestación de su voluntad; en los presentes Estatutos, así como en las normas de interpretación o desarrollo de los mismos aprobadas por el Patronato; y, en todo caso, en las disposiciones legales que le sean de aplicación, en particular, la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco (en adelante, “Ley de Fundaciones”) y sus disposiciones reglamentarias de desarrollo.

En consecuencia, y sin perjuicio de las pertinentes comunicaciones al Protectorado, podrá adquirir, conservar, poseer, disponer, enajenar por cualquier medio y gravar toda clase de bienes muebles o inmuebles y derechos; realizar todo tipo de actos o contratos; recibir y reembolsar préstamos; transigir y acudir a la vía gubernativa o judicial ejercitando toda clase de acciones y excepciones ante Juzgados, Tribunales y Organismos públicos y privados, con sujeción a lo establecido en el ordenamiento jurídico.

Artículo 3.- Fines fundacionales

La Fundación tiene por objeto la defensa del medio ambiente en el término municipal de San Sebastián, es decir, cuidar el territorio y el patrimonio natural, los recursos naturales, cuidar la biodiversidad y los paisajes, velar por un desarrollo sostenible de la ciudad y trabajar en red con otras fundaciones y entidades similares de todo el mundo.

Para ello la Fundación desarrollará programas y proyectos que tengan como objetivo que San Sebastián avance hacia un modelo de ciudad más sostenible. En este marco promoverá, participará e impulsará iniciativas en materia de medio ambiente, educación, sensibilización, consumo responsable, y en general, actividades hacia la sostenibilidad con el fin de potenciar estilos de vida más sostenibles entre la ciudadanía donostiarra.

IFK/NIF: G-20.988.432
Erregistroa: F252

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 · 20012 · Donostia/San Sebastián
Tel: +34 943 45 35 26 · Faxa: +34 943 47 14 14 · cristinaenea@donostia.eus · www.cristinaenea.eus





Dentro de estos amplios objetivos, tendrá como actividades concretas más importantes e inmediatas las siguientes:

- Pondrá en marcha un Observatorio de la Sostenibilidad de la ciudad.
- Desarrollará actividades de información ambiental y de Centro de Documentación en la materia.
- Desarrollará proyectos de Educación Ambiental como actividades en el marco de la Agenda 21 Escolar, Aula de Consumo Sostenible, Taller temático de la educación para la sostenibilidad en la Red Española de Ciudades Educadoras, Semana Verde-Aste Berdea, Udalekus...
- Impartirá cursos de formación, de postgrado universitario y organizará congresos, jornadas y conferencias sobre la materia.
- Organizará exposiciones sobre la materia en sus instalaciones o en colaboración con otras entidades.

Artículo 4.- Desarrollo de los fines

Los fines fundacionales pueden ser desarrollados por la Fundación del modo que crea oportuno, incluida la participación en otras entidades u organizaciones, sin otras limitaciones que las establecidas por las entidades fundadoras en el acto fundacional; en los presentes Estatutos, así como en las normas de interpretación o desarrollo de los mismos aprobadas por el Patronato; y, en todo caso, en las disposiciones legales que le sean de aplicación, en particular, la Ley de Fundaciones y sus disposiciones reglamentarias de desarrollo.

Artículo 5.- Domicilio

La Fundación tendrá su domicilio en el Centro de Recursos Medio Ambientales, ubicado en el Palacio del Duque de Mandas del Parque de Cristina Enea, Paseo Duque de Mandas, 66, de San Sebastián.

El Patronato podrá determinar las sedes de los establecimientos, delegaciones u oficinas, que, según los casos, se fijen en función de las necesidades derivadas del cumplimiento de los fines fundacionales.

Artículo 6.- Ambito territorial

La Fundación desarrollará principalmente sus actividades en el término municipal de San Sebastián.

Artículo 7. Personas Beneficiarias

1.- Podrán disfrutar de la actividad y prestaciones fundacionales todas aquellas personas físicas o jurídicas que cumplan con los criterios objetivos e imparciales establecidos por la



Fundación y en el caso de las personas jurídicas siempre que, además, persigan fines de interés general.

2.- Nadie podrá alegar, ni individual, ni colectivamente ante la Fundación o su Patronato, derecho alguno al goce de sus beneficios, antes de que fuesen concedidos, ni imponer su atribución a personas determinadas.

